

2021. urtearen hasieran, Euskal AEn aurreko urtean baino 1.400 enpresa gutxiago kontabilizatu ziren

Euskal AEko enpresak nahiko gazteak dira; % 32,8k bost urteko edo gutxiagoko antzintasuna dute, eta % 16k, bi urtekoa edo gutxiagokoa

Euskal AEn, jarduera-sektoreetako 152.554 enpresak ziharduten 2021eko urtarrilaren 1ean, aurreko urtean baino 1.417 enpresa gutxiagok (–% 0,9), Eustatek emandako datuen arabera. Enpresa horiek beren jarduerak 169.897 establezimendutan betetzen zituzten (fabrikak, saltokiak, bulegoak...), eta urtebete lehenago baino 1.474 gutxiago (–% 0,9) erregistratu ziren. Establezimendu horiek honela banatzen dira: % 14,3 Araban; % 52,0 Bizkaian, eta % 33,7 Gipuzkoan.

Establezimendu horietako enplegatuen kopuruak % 1,3 jaitsi ziren bost urtean lehen aldiz, COVID-19ak eragindako osasun-krisia eta enpleguaren arloan abian jarritako euste-neurriak bereizgarri izan dituen urtean. Enpleguan atzerakadak izan dira ia sektore guztietan, baina hiruk tasa positiboak izan dituzte: Higiezinaren jarduerak (% 2,5), Informazioa eta komunikazioak (% 1,4) eta Administrazio publikoa, hezkuntza eta osasuna (% 0,6).

Behera egin duten sektoreen artean, finantza-jardueren eta aseguruaren sektorea nabarmendu behar da; 2020. urteko egoeraz aparte, duela 6 urte hasi zen enplegu-galeraren joerarekin jarraitzen du, urte horretan % 2,24 enplegu gutxiagorekin.

Pertsona enplegudunen banaketa ehunekotan eta urte arteko aldakuntza jarduera-adarren arabera. 2021/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Langileak	Aldak. %	Langileak	Aldak. %	Langileak	Aldak. %	Langileak	Aldak. %
Guztira	100,0	-1,3	100,0	-1,6	100,0	-1,4	100,0	-1,1
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	1,2	-9,8	2,1	-13,0	1,0	-4,5	1,1	-13,3
Industria, energia eta saneamendua	19,6	-2,6	25,8	-2,6	15,0	-2,8	23,6	-2,5
Eraikuntza	5,8	-0,3	4,4	-1,1	6,5	-1,4	5,5	2,0
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	25,6	-1,8	23,1	-1,3	26,3	-2,2	25,9	-1,5
Informazioa eta komunikazioak	2,5	1,4	1,7	0,2	3,3	2,3	1,8	-0,3
Finantza jarduerak eta aseguruetakoak	1,7	-2,2	1,2	-2,9	2,0	-1,1	1,5	-4,3
Onibar-jarduerak	0,6	2,5	0,4	-8,5	0,6	2,3	0,5	7,1
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	14,5	-1,8	11,6	-0,5	16,9	-2,8	12,5	-0,1
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	23,8	0,6	25,6	0,2	23,9	1,2	22,9	-0,1
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	4,5	-1,4	4,0	-3,6	4,5	-1,7	4,8	-0,1


Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Egitura dela eta, kopuru handiena izan duen sektorea *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* izan zen, % 35,9; ondoren, *Jarduera profesional eta lagungarriak* (% 16,3) eta *Eraikuntza* (% 11,9).

Establezimenduen tamainaren arabera banaketa aurreko urteetan bezalatsu izan zen. 2.529 establezimenduk –guztien % 1,5– baino ez dituzte batez beste 50 langile edo

gehiago enplegatzen; baina, oro har, enplegatutako pertsona guztien % 41,4ri ematen zioten lana. Hala ere, 123.740 establezimendu —guztien ia hiru laurdenak—, berriz, tamaina txikikoak dira (3 enplegatu baino gutxiago), eta bertan, enplegatu guztien % 16,5ek zeuden. Hala ere, aurtan, 6 enplegatu baino gutxiagoko 1.321 establezimendu galdu dira, hau da, itxitako establezimendu guztien % 90.

Euskal AEn enplegatuten eta establezimendu kopuruaren banaketa, jardueraren arabera. 2021/01/01



Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoen direktorioa

Establezimenduen jarduera-adar nagusien arabera batez besteko tamaina dela eta, enplegatuen kontzentrazioa handiena Industria, energia eta saneamenduaren sektorean erregistratu zen, eta Euskal AEn, oro har, establezimenduko batez besteko tamaina 16,2 langilekoa da. Araba nabarmentzen da (20 langile), eta batez besteko tamaina Bizkaian 14,4 da eta Gipuzkoan, 16,4 langile establezimendu bakoitzeko.

Euskal AEko langileen banaketa ehunekotan, jarduera-adarren (A10) arabera, lurralde historikoari eta sexuari jarraiki. 2021/01/01

	Euskal AE		Araba/Álava		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak
Guztira	56,0	44,0	57,7	42,3	55,5	44,5	55,9	44,1
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	79,3	20,7	78,7	21,3	81,9	18,1	76,3	23,7
Industria, energia eta saneamendua	79,3	20,7	80,4	19,6	79,7	20,3	78,4	21,6
Eraikuntza	89,8	10,2	89,0	11,0	89,7	10,3	90,5	9,5
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	54,6	45,4	54,5	45,5	55,4	44,6	53,4	46,6
Informazioa eta komunikazioak	64,9	35,1	67,1	32,9	64,8	35,2	64,0	36,0
Finantza jarduerak eta aseguruetaoak	45,0	55,0	46,0	54,0	45,2	54,8	44,1	55,9
Onibar-jarduerak	49,7	50,3	46,7	53,3	50,4	49,6	49,3	50,7
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	51,7	48,3	54,4	45,6	51,5	48,5	50,8	49,2
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	33,4	66,6	34,3	65,7	34,0	66,0	31,9	68,1
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	45,4	54,6	44,9	55,1	46,8	53,2	43,6	56,4

Iturria: Eustat. Jarduera ekonomikoaren direktorioa

Sexuaren arabera, Euskal AEko enplegatuen % 44,0 emakumeak izan ziren 2020an, iazko antzeko proportzioan, baina arrakala murrizteko joera txiki batekin. Sektore feminizatuenak honako hauek izan dira: Osasun-arloko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak (% 76,62 emakumeak), Hezkuntza (% 68,32) eta Zerbitzuak (% 62,55). Aitzitik, enplegua gehienbat gizonezkoena izan da honako sektore hauetan: Eraikuntza (% 89,8), Industria eta Lehen Hezkuntza, haietako bakoitza gizonen % 79,3rekin.

ENPRESAK

Establezimenduen jardueren euskarri diren enpresa guztien (unitate juridikoak) % 97,2k Euskal AEn zuen egoitza eta 4.230ek, Estatuko beste leku batean. Erdiak baino pixka bat gehiagok, 77.151 enpresak, Bizkaian zuten egoitza; 50.315ek (%33,0), Gipuzkoan, eta 20.858k (% 13,7), Araban.

Enpresen batez besteko tamainak lehengoan dirau: 6,0 enplegatu enpresako eta 5,4, establezimendu bakoitzeko. Forma juridikoa pertsona fisikoa duten titularrak 1,4 enplegutara baino ez ziren heldu, bai enpresako bai establezimenduko; gainerako forma juridikoen kasuan, ordea, batez besteko horiek 12,5 eta 10 pertsonakoak dira, enpresa eta establezimendu bakoitzeko, hurrenez hurren.


ENPRESA-DEMOGRAFIA

Enpresek dituzten urteak direla eta, Euskal AEko enpresen panoraman enpresa berri samarrak daudela azpimarratu behar dugu. Euskal AEn ari ziren enpresen % 32,8k bost urte edo gutxiago zituzten, eta bi urte edo gutxiagokoak % 16,0 ziren.

Txandakatzea dela eta, establezimenduen altak eta bajak kontuan hartuta, 2020an 12.076 establezimenduk hasi eta 13.553k eten zuten jarduera; alegia, saldo negatiboa 1.477 establezimendukoa izan zen. Ireki zuten establezimenduen tasa (sortutako establezimenduen eta stock-ean dauden arteko zatidura) % 7,1ekoa izan zen eta itxitakoen tasa, % 8,0koa. Ondorioz, hazkunde garbiko tasa negatiboa izan zen (– % 0,9).

Establezimenduko jaiotza- eta heriotza-tasak. Euskal AE

Ehunekoa



Iturria: Eustat. Enpresak sortzeari eta ixteari buruzko estatistika

Txandakatze handiena honako arlo hauetan gertatu da: *Merkataritza, garraioa eta ostalaritza* (alta guztien % 29,1 eta baja guztien % 33,0); *Eraikuntza* (alten % 18,2 eta bajen % 14,6), eta *Jarduera profesional eta osagarriak* (alten % 17,6 eta bajen % 17,8).

Nortasun juridikoaren arabera demografia aztertzean, pertsona fisikoaren formularen bidez sortutako establezimenduak nabarmendu behar dira; alten % 67,1 eta bajen % 67,6 eragin zuten.

Establezimenduen demografia Euskal AEn. 2021/01/01

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arab.	Altak	Irteerak
Guztira	12.076	13.553	Guztira	12.076	13.553
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	250	875	Pertsona fisikoa	8.104	9.165
Industria, energia eta saneamendua	495	678	Akziokako elkarteak	214	456
Eraikuntza	2.192	1.981	Elkarte mugatua	2.776	2.859
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	3.512	4.469	Bestelako elkarteak	911	1.006
Informazioa eta komunikazioak	386	334	Bestelako forma juridikoak	71	67
Finantza jarduerak eta aseguruetak	257	372			
Onibar-jarduerak	348	224			
Jarduera profesionalak eta lagungarriak	2.124	2.417			
Herri administrazioa, hezkuntza eta osasuna	1.307	1.238			
Arte jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	1.205	965			

Iturria: Eustat. Enpresak sortzearen eta ixtearen estatistika

Pertsona enplegatuei dagokienez, pertsona fisikoaren forma juridikoa duten establezimenduek establezimendu berrietan enplegatutako pertsonen % 39,5 hartu zuten eta desagertutako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 42,1. Sozietate mugatuak ere nabarmentzen dira: alta emandako establezimenduetan enplegatutako pertsonen % 35,1 eta baja emandako establezimenduen % 31,7.

Establezimenduen tamainaren arabera, estraturik dinamikoena 2 enplegatu edo gutxiagokoa da, ohikoa den bezala. Berak bakarrik alta guztien % 90,9 eta baja guztien % 89,5 erregistratzen ditu.

Beste aldean, establezimendu handien (50 enplegatu edo gehiago dituztenak) estratua dela-eta, alden eta bajeen % 0,2 baino ez dira. Aldiz, establezimenduetako pertsona enplegatuen alta guztien % 11,6 eta baja guztien % 10,9 dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62